

NOAUA!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko ekainak 29 III. urtea

Usurbil, 46. Zenbakia



*Ai Ixabel, Ixabel,
Ixabel guria...*

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Jaione Azpiroz!** azterketak amaitzen ditunanean parrandaz parranda ibiliko gaittun eta uztailaren 3an izango dinagu guztiok elkarrekin ospatzeko aukera, hire kontura noski! Kuadrilatarrak.



Zorionak **Josu!** Ekainaren 26an 7 urte bete zenituen, eta espero dugu ondo pasako zenuel. Muxu handi bat. Etxekoak.



Zorionak **Arritxu Osa Unanue!** Uztailaren 4an 6 urte betetzen dituzunez prestatu belarriak. Guraso eta Maitaneren partetik ondo pasa.



Maria Zulaika Aranburu. Ekainaren 25ean 14 urte betetzen zenituela ez zitzaigun ahaztu baina... Txoko honetatik berriz ere zorionik beroenak. etxekoen partez.



Aupa Pamplonica! Gure **Arkaitzek** ekainaren 27an 20 urte bete zituen. Zorionak anai, guraso eta aiton-amonen partez.



Mikel Irazusta. Zorionak! uztailaren 1ean 11 urte beteko ditu gure mutilak eta Santixabel bezpera denez ea ondo pasatzen dugun. Muxu handi bat etxekoen partez.



Maixabel Balerdi Izagirre. Zorionak! Ekainaren 28an bete zenituzenez urteak zorionak berriz. Beti bezain maitagarria izaten jarraitu. Etxekoak.



Fredd Gridley. 1998-7-3 From Euskadi to London. Happy birthday Freddi, zorionak Freddi. "Have a nice time". Rekondo Arzallus's family and Berradre Rekondo's family. A kiss for you.



Maite Rekondo Arzallus. 98-7-5 Zorionak politta! Gure etxeko erreginari, mundu honetako muxurik goxo ta luzeenak. Etxeko guztiak.



Zorionak **Xabier eta Maialen Ugalde.** Etxeko mutil txikiak ekainaren 3an urtea bete zuen neska motzak berriz, uztailaren 10 ean beteko ditu 6 urte. Muxu handi bat etxekoen partez.



Inaxi Etxeberria. Ekainaren 27an urteak bete zituen gure amonari zorionak. Beti bezain alai jarrai dezan. Familia.



Aitor Segurola Martinez "txiki". Denok ez bagaude ere, uztailaren 6a berezia izatea nahi dugu. Zorionak eta muxu pila bat.

Norbaitek familiak, lagunak, aldamenekoak, ezkondatakoak... zoriondu nahi baditu hemen du dohainik zoriontzeko aukera. argazki bat eta testuan jarri nahi dena soilik ekarri behar duzu.

Hurrengo alea: uztailaren 17an

Agurak ekartzeko epea: uztailaren 13a

Hildakoak

1998-06-20
Miguel Balda
Goikoetxea
79 urte
Kaleberri

Bai, esan?

• Udala	37 19 51	• Taxi geltokia	36 21 78
• Udaltzaingoa	36 11 12	• D.Y.A.	46 46 22
• Anbulategia	36 20 13	• Gurutze Gorria	27 22 22
• Udarregi ikastola	36 12 16	• Gure Pakea egoitza	37 32 28
• Agerialdeko ikastetxea	36 38 95	• Gure Elkarte egoitza	37 17 51
• Oiardo kiroldegia	37 24 98	• Arrate egoitza	36 63 40
• Zumarte musika eskola	37 15 94	• Eusko Tren informazioa	47 09 76
• Etumeta euskaltegia	37 20 01	• Noaua! aldizkaria	36 03 21

Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES
SETABU, S.L.
TAILERRAK

Ugarte Industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tel.: 943 36 08 48

BIDEO IKUSKA

Pelikula berriak eta azken nobedadeak zure eskuera:

"L.A. Confidencial", "007 el mañana nunca muere"
"Perdita Durango", "La boda de mi mejor amigo"
"Conspiración"

Ondo pasatzen festak!

Disney pelikulak salgai

K/ Nagusia, 35 - Tel.: 943 37 10 98

Zer irizten?



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkarte
Kale Nagusia, 37
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com

Zuzendaria

Olatz Altuna

Kazetariak

Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai,
Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino,
Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,
Nieves Aranburu, Luis Aranalde,
Zalao Arnaiz, Maribi Arrospide,
Agurtzane Solabarrieta, Joseba
Pellejero, Joxe Aginaga, Ainara
Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz,
Agustín Esnaola, Izaskun Zubiria,
Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua,
Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko
Manterola eta Joxe Torregaray.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,
Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre eta Aintzane Aizpurua

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker
Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Sukaldaria

Joxe Mari Sarasola


Tirada: 2.300 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Alkohol kontsumoaren prebentzioa

Mikel Usabiaga

Udarregi ikastolako irakaslea

Badirudi azken datuen arabera, alkohol kontsumoaren gehiegikeria, adinez jeisten ari dela. Begibistan daukagu aste bukaerako gazte, gaztekoen, eta ez hain gazte direnen arteko, gehiegi edanez, denbora pasatzeko ohitura triste eta kezagarri hori. Esaterako Irungo herrian, (eta datu freskoak dira), mozortze sakonagatik atenditu behar izan dituztenetatik %40, 14-20 urte arteko adinean zeuden.

Kristo aurretik 5.000 urte inguruan, ontzi batean ahaztuta utzitako mahatsetik, ustekabeen asmatutako alkohol horrek, ez du izan beti arrakasta bera. Garai hartan, Jainkoen oparizat hartua izan bazen ere, geroztik debekatuta egondako epeak izan dira, ixilpeko kontsumoa eta negozioa eraginez noski. Gaur, ordea, neurrigabeko kontsumoan murgilduta gaudela esan daiteke.

Alkoholaren kontsumo arbitrarioak ondorio latzak sortzen ditu: lagunak galtzea, gizarteko arazoetatik urrutiratzeko, familiako arazoak, kotxe istripuak, gibekeko zirotsia, koma etilikoa eta heriotza. Adibidez, gure inguruan gertatzen diren heriotz guztietatik %5ean, alkohola da kausa.

Bestalde, kontraesan xebreak dauzkagu alkoholaren inguruan: askotan topatu dugu, alkohola drogaren esparruan kontsideratzen ez duena. Ez da denbora asko, seigarren basoerdia irensten ari zen batek, aurrean geneukan taldetxo bat porrozaleak zirela esanaz, tonu despektiboz markatu zituena. Beraz, behingoz garbi jarri beharko dugu, droga-menpekotasun fenomenoaren barruan sartzen dela alkohola ere: ardoa, sagardoa, garagardoa etab. Eta hori gutxi balitz, kontraesanik haundiena, drogen kontra etengabe ari garenon (helduon) artean dago. Ez al diegu bada guk geuk errazten

kontsumoa gatetxoei? Ez al gara ari edari alkoholdunak promozionatzen, jendea barra-barra kontsumitzera erakarrit?

Eta zerk daramatza, batez ere hainbat gaztetxo egoera horretara? Faktore asko dago, oso konplexua da. Hobe beste baterako uzten badut.

Eta zein da irtenbidea? PREBENTZIOA: **HEZIKETA**. Neurriaren kultura aldarrikatzea, pertsonaren nortasuna sendotzea, "Ez, ez dut behar", "baso bat nahikoa dut", "orain ez dut behar"... norbere buruaren jabe izatea. Horrez gainera, gazteen egoera sozial orokorra hobetzea etab.

Horretan dihardu ASKAGINTZA izeneko herri erakundeak. Gure herrian, Usurbilen, guraso talde batek ikastaro bat egin berri du erakunde honek zuzenduta. Gazte topaketa batzuk egiteko asmoa ere badago. Ikastolan, berriz, 1. DBH mailan, **HORDAGO** izeneko programarekin ari gara lanean. Irakasleok ere ikastaro bat egitekotan gara talde-hezitzaile berarekin, ondoren, ikasgeletan aplikatu ahal izateko. Baina jaunak eta andreak!, hau guztion lana da, baita makro-jaialdia antolatzen dituztena ere: Sagardo Eguna, **KILOMETROAK** etab. Hauek ere bultzatzea dezakete **HEZIKETA**.

Dena den, gure herriko festetan berriro ere, alkoholaren hatzaparretan eroritako asko ikusiko dugulakoan nago. Arazo kezagarri honen aurrean denok mugitu beharko dugu, herriko erakunde guztiak, politikoa...

Etorkizun osasuntsu batekin amesten dut eta ilusioz ikusiko nuke droga-menpekotasunaren aurkako dinamika bat garatuko bagenu.

Inoiz ez da belaunaldi berria degeratzen aurrekoak zutik badirau

Azala: Santixabel jaiak



Usurbilgo Udala
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

Publizitatea gure etsai?

Egunkariko albiste bat irakurri ondoren, gure iritzia adierazi nahi dugu. Adierazpen askatasunaren ezaugarri nagusia, edonoren ikuspuntua inolako eragozpenik gabe hezitzea dela iruditzen zaigu.

Ez gaude ados publizitateak egunero eskaintzen digun irudi estereotipatzaileekin, gure pentsatzeko era mugatzen duela uste baitugu.

Lehenik eta behin sexismoa dugu arazo nagusi, emakumeak agertzen direnean betiere sukaldean agertzen baitira eta, noski, den denak 90-60-90eko neurriekin. Gizonezkoak agertzen direnean, berriz, emakumeenganako jabetza islatzen dute eta hauek ere, gehienbat, gorputz altletikokoak azaltzen dituzte.

Familiarekin jarraituz, berriz, zer esango dugu? Beti ikusten dena, baina errealitatetik urrun dagoena: sekulako etxeak (zergatik ez pisu arrunt bat?); ondoren, nola ez, izugarriko kotxea (gehiengoak lortu ezin duen hori bezalakoa); kopuru haundiko familiak, ongi jantziak, ederrak, sekula hase-rretzen ez diren horietakoak...

Atentzioa eman digun beste zerbait zera da, homosexualitatea ez dela agertu ere egiten, gure gizartean ia egunero eztabaidagai denean. Eta azkenik, iragartzen den produktua garbikari bat bada, segundo gutxitan zikina zegoena inoiz baino garbiagoa agertzen duena, laboratoratik zuzen-zuzenean plantxatuta eta dena. Eta zer esanik ez produktu estetikoek, egun

gutxitan zure gorputza lirain eta zoragarri bihurtzen duten horiek. Esan nahi duguna zera da, iragarkiak gezur haundiak besterik ez direla, utopia bat. Aurretik esan bezala, gure pentsaera mugatzeko eginak.

Udarregi ikastolako DBH 3. maila

OKERRAK ZUZENDUZ

- Joan den alean Berriketa sailean elkarrizketatu genuena ez da Eli Izagirre Aranburu, Eli Izagirre Bruño baizik.
- Herriko taldeetan Erroizpe elkarteak ohorezko bazkideak zituela adierazten genuen. Patxi Labaka zen horietako bat eta ez Joxe Luis Labaka.

xirikitutik



Goian, ezkerretik eskuinera: Pilar eta Aitor Zaldúa Cernuda(Kaleberri), Mari Carmen eta Itxasne Telleria Santiago (Olarriondo), Karmen eta Olatz Uli Arruti (Atxegalde) eta Itziar eta Urtzi Urkizu Oiarbide (Galtzaragaina). Behean: Montse eta Jon Guadix Dominguez (Olarriondo), Monica eta Alazne Odriozola Rojo (Aginaga), Josune eta Iratxe Angulo Galatas (Santuenea) eta Mari Jose eta Laura eta Maria Peciña Leon (Santuenea)

"Aurreko alean argazki bera-tera zuten eta!" esango duzue zuetako askok. Argazkia aurreko bera da baina oraingoan testu gehiago sartu diogu. Argazkian ateratzen direnak zein diren jakin nahi baduzu hemen duzu aukera.

ALBORTA
HARATEGIA

Festa onak pasa!

Behoko kalea, 4
Atxegalde ☎ 943 36 57 42

MAHUKA



GAZTE DENDA

*Udaberriko moda
berria zuretzat!*

Etxebeste kalea 3 - Tlf. 943 36 11 06

LIZARDI
LIBRYDENDA


*Santixabel zoriontsuak
pasa ditzazuela guztiok!*

K/ Etxebeste, 1 Telf: 943 36 11 15



Ramon Iparragirre Izagirre

Zubietako errebote plazaren ondoan dagoen Prostuetxe baserrian jaio zen Zubietako sastre esanda ezagunagoa den gizon hau. Errebote partiduetako tantoak kantatzen ere ikusiko zenuten inoiz errebote plazan.



Zubietan eta Usurbilen ibili omen zinen eskolan.

7 urte bete bitartean Zubietan ikasi nuen. Alamandegin eskola txiki bat zegoen eta han ibili nintzen. Maria Alberdi izan zen gure maistra. Gero, 15 urte bitartean Usurbilgo La Sallen ikasi nuen, lehendabizi maisuekin eta fraileekin gero.

Zergatik utzi zenituen ikasketak?

Txikitatik sastreia izan nahi nuela esaten omen nuen. 14-15 urte nituela lantokia banuela esan zidaten eta Fermin Kalbeton kalean zegoen Aizarna sasterrian hasi nintzen lanean. 1955 urtean hasi nintzen eta 1974an utzi nuen. Alamandegin bazen lehen sastre bat. Nik hura ikusten nuen txikitik, bere zinta lepoan hartuta. Agian handik zetorkidan sastre izateko nahi hori.

Ordura arte behin ere sastre lanean aritu zinen?

Ezer jakin gabe hasi nintzen lanean, pintxe moduan. Banaketak egiten nituen, hariak kendu, hariak pasa... Pixkanaka-pixkanaka sastre lanak ikasten joan nintzen eta soldaduskara joaterako ofiziala nintzen ja. Garai hartan ofizioa ikastera joaten ginen. Orain berriz, ofizioa ikastera datorrenak nahi izaten du kobratu.

Bartzelonara ere joan zinen ezta?

Donostiako sasterria hartan egon nintzen 1974.a arte. Urte honetan "korteia" ikastera Bartzelonara joatea erabaki nuen. Hilabete eta erdi egon nintzen Bartzelonan. Ikasi baino gehiago zen "titulitis" kontua.

Titulua ateratzean hasi al zinen etxean lanean?

Donostian lanean ari nintzen bitartean etxean ere zenbait lan egiten nituen. 18-19 urterekin etxean bezeroak banituen. Donostian diru pixka bat ematen zuten, baina ezer ez. Horregatik

etxean zerbait egin beharra zegoen. Titulua lortu eta gehiago ez nintzen Donostiara joan.

Jostun lana galtzen ari den zerbait al da?

Baietz uste dut. Guk bizitza aurrera ateratzeko adina lan izan dugu, baina gero eta lan gutxiago dago ni bezalako sastre batentzat. Dendetan jantzi egokiak aurkitu ezin dituztenentzat egiten ditut erropak, neurrirra. Gu gorputz haundi, tripa haundi eta horrelakoei esker bizi gara, eta horrelakoak gero eta gutxiago daude gizarte honetan.

Emakumeak edo gizonezkoak, zein etortzen zaizkizu gehiago?

Lehen ez zen emakume asko etortzen, baina orain emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago etortzen dira. Gero eta jende gutxiagok ikasten du etxean josten.

Zubietako plazan errebote partiduetako kantalaria zara. Nola hasi zinen horretan?

Kasualitatea izango da, baina errebotean eza-gutu nuen kantalaria Alamandegiko sastreia izan zen, hura zen kantalaria. Harek utzi zuenean nire anaia zapateroak hartu zuen eginkizun hori eta gero hasi nintzen ni. 30 urte inguru darma-zkit partiduetako tantoak kantatzen.

Zuk euskaraz kantatzen duzu orain, lehen ere bai?

Hasieran erdaraz esaten genuen guztia. Urte batean Jexux Mari Errekondok euskaraz zergatik ez nuen kantatzen esan zidan. Hasieran zaila egin zitzaidan hizkuntzaz aldatzea, baina orain jendea ere ohitu egin da. Billabonako plazan erdaraz kantatzen da errebote partiduetan, Zubietan, aldiz, euskaraz.

ALKARTASUNA KANPO KOOPERATIBA

Haziak, pentua,
ongarriak,
sulfatoak,
burdindegiteknak,
fitosanitarioak...

Santixabel ederrak pasat!

Kale nagusia, 24 Telf. 943 36 11 14



TABERNA

*Giro aparta
santixabeletan!*



Irazu kalea, 9
Tlf: 943 36 02 17

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Santixabel on!

Nagusia, 6
Telf: 943 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Portuko Joxe Mari trenak harrapatu du

Azkenean gertatu da gertatu beharrekoa. Trenbide-pasabide zaharra itxi zuten istripuak gerta ez zitezen eta alderantzizkoa gertatu da. Hesiak dauden pasabidea zeharkatzen ari zela, trenak Portuko **Joxe Mari Caminoren** traktorea eta atzeko gurdia jo zituen. Gurdia erabat txikituta gelditu zen istripua gertatu zen lekutik urruti eta traktoreak ere kalfeak izan zituen.

Arratsaldeko 16.10 aldera gertatu zen guztia. Joxe Mari, Zumeta aldetik Illunbe sagardotegia dagoen aldera zihoan traktorean. Oriotik zetorren tre

nak, traktorearen atzeko partea jo zuen.

Gizona arriskutik kanpo dago ja. ezkerreko hankan eta buruan golpe haundi samarra hartu zuen trenak traktorea jota-koan.

Treneko gidariaren esanetan, istripuaren unean hesiak jeitsita zeuden eta traktorea hesien tartetik ari zen pasatzen. Hala



ere, guk badakigu hesi hauek ez dabiltzala ondo. Azken egun hauetan nahi zutena egingen zuten, batzuetan gora, besteetan behera.


KALEBERRI

Ines Kamino



Kanpaiak batera eta bestera

Joan den ekainaren 13 eta 14an kanpai hotsak lau haitzetara zabaldu ziren Usurbilen. Hitzaz Jasoz taldeak kanpai doinu desberdinak grabatu nahi zituela eta aspaldi entzun gabeko kanpai musika izan genuen.



Azken hilabeteetan aldaketa ugari ematen ari dira kanpaiekin. Lehendabizi orduetan eta erdietan jotzen zituzten kanpaiak kendu zituzten. Gero, herria kezkatuta ibili zen larunbata eta igandeko kanpaien ordubeteko saioarekin. Orain,

berriz, kanpaiek soinu arraroa ateratzen dute.

Aurreko batean, Usurbilen norbait hil zela adierazten duten kanpai hotsak jo zituzten, baina ez ziren lehen, azken aldian

jotzen zituztenen antzekoak. Bi kanpai hots sendo entzun beharrean bat sendoa eta bestea ahula entzuten ziren. Kanpaiak gaizki ote zebiltzan? Doinu berriren bat atera ote zuten?

Matilderengana joan eta zera esan zigun: hil kanpaiak jotzeko erabiltzen den beheko botoia ez omen dabil ondo. Horregatik goitik jotzen ditu orain. Baina goian bi kanpai hots sendo jotzea ezinezkoa denez, garai bateko doinua berreskuratu du: kanpai hots sendoa aurrena eta ahula zertxobait beranduago. Honela jotzen omen ziren garai batean agonia kanpaiak.

ATXEGALDE

Zaloa Arnaiz



Ikusi-makusi, zer ikusi?

Maiz ikusten dugu liburu eta museoetan iragane-ko eta ezagutzen ez diren artisten lanei "anonimoa" ipintzen dietela. Anonimoa agiririk gabeko pobre hutsa besterik ez da, mailarik apaleneko deitura, arte munduan "kaxako haurra". Herrian baditugu uste baino anonimo gehiago eta hauen arte-lanak oso agerian ez badaude ere, herrian zehar topa ditzakegu. Ez naiz zenbat dauden kontatzen hasiko baino Kaleberritik Atxegalde bitartean bueltatxoren bat ematera gonbidatuko zintuzketet.

Aspaldian entzun nuen gauza bat falta denean, falta

den lekuan nabarmentzen dela gehien baina badirudi udaltzaingoan hori ez dela gertatzen. Udaltzainak noizean behin Atxegaldera kotxez joan beharrean oinez joango balira, agian bestelako gauzak, artista anonimo honen arte-lana bezala, ikusteko aukera izango lukete.

Arte-lan hau denbora mordoan egon

dela ikusirik, artista anonimook gure abileziak erakusteko leku iraunkorra badaukagu eta zuhaitz faltarik ez dago. Beraz, artista anonimook animo!



KALEZAR

Ainara Uribe



Datorren urte arte!

Etorri ziren moduan alde egin dute San Juanek, abiada bizian. Beste herri batzuetan San Juan festak hasi besterik ez dira egin eta guk, Kalezarren amaitu ditugu ja.

Eguraldia behintzat, ondo portatu da. Aurten San Juanek euririk ez digu bidali. beroa bai, San Juan suak sortzen duen beroa gainditu zuen ekainaren 19 eta 20koak. Hala ere, ezin kexatu. Kalezarko festak San Juan egunean amaitu ziren eta San Juan bigarrean euria egin zuen. Bai kasualitate!

Bestela festa lasaiak izan dira. Larunbat gauean jende

asko izan zen hemen inguruetan. Alaitz eta Mainerrek jotzen zutela eta guraso, ume, gaztetxo, bertako, kanpokoak... festa nagusitu zen Kalezarko kaleetan.

Egunean zehar ere hainbat ikuskizun izan ditugu. Urtero bezala "Gorritiren showa", oilar borroka eta guzti, ikusi ahal izan zuten larunbat eguerdian hemen izan zirenek. Santi magoak ere harritura utzi zituen plazan bildu ziren gaztetxoak.

Gaztetxoak izan ziren San Juan suaz gehien gozatu zutenak. Hau bota, bestea bota, suaren inguruan dantzan ibiliko lirateke gustora.



SANTUENEA

Alfontso Vidal



Zorrotzeko zubitik kotxeak pasatzen dira


Berrikuntza lanak hasi zituztenetik Zorrotzeko zubitik lehen kotxeak pasa ziren joan den astean. Zubian oinezkoentzat pasabide berria egiteko lanak ez dituzte bukatu baina zubia zenbat jendeak erabiltzen

duen ikusita zabaldu beharrean aurkitu dira. Oraindik ez dituzte lanak bukatu, asko falta zaiela dirudi. Horregatik, lanean ari diren bitartean zubia itxi egiten dute. Baina lunabarreko 20.00etatik goizeko 9.00ak

bitartean kotxea hartu eta Santuenea aldera edo Usurbil aldera pasa daiteke lasai-lasai. Beraz, azken hilabete hauetan izandugun arazoa konpondu da nolobait. Guk nahi dugun orduan

ezin pasako gara, baina goizean eta ilunabarrean aukera hori izango dugu behintzat. Lanak behin betiko laister amaituko dituztela espero dezagun.

Bestalde, Santueneko festak izango dira aurten ere. Azken urteetan bezala jai batzordekoak hasi dira lanean eta festak noiz izango diren ere badakigu dagoeneko. Irailaren 10ean hasi eta 13a bitartean festa giroa nagusituko da Santuenean. Uztailaren amaieran eta abuztuaren hasieran, Santueneko festak izango ez badira ere, seguru suziriak eta musika doinuak entzungo ditugula San Estebango jaiekin batera.



URDAIAGA


Eider Jauregi



Puela baserria bota dute

Urte dexente pasa dira Puela baserria bakar-bakarrrik geratu zenetik. Gure baserriatik gora, Andatza bidean gelditzen den baserri bakarra da bera. Zaharrenek Puela-zarra ondo gogoratuko dute, baina gazteenek seguru non zegoen ere ez dutela jakingo. Izan ere, dagoeneko sasi tartean ikusi ere ez da egiten, eta ikus-teko ere gutxi dago, harri bakar batzuk besterik ez.

Orain, Puela bota berri dute. Berritze lanak egitekotan zirela bagenekien, baina horren



azkar hasiko zirenik ez genuen uste. Andatzara bidean hutsune galanta topatuko dute handik askotan pasatzen direnek. Izan ere, dagoeneko ez da Puelaren arrastorik gelditzen. Joan den astean bota zuten

leku berean baserri berria egiteko. Hori dela eta hainbat kamioi eta grua dabil-tza bueltaka Andatza bidean.

Bestalde, joan den urteko ekainaren 1ean izandako uholdeak zirela eta Urdaiagatik Puela bitartean urak biderik gabe gelditu

ziren. Orain berriz, lau puntutan izugarrizko tuboak ezarri dituzte. Lan horiek egiteko bidea moztu eta zati bat puskatu beharrean izan ziren langileak, tuboak bidearen azpitik pasatuko baitira.

AGINAGA

Eskola txikia eta Arrate egoitza

Iratxe Begiristain



Aginagako eskola txikiko haurrek amaitu dute aurtengo ikasturtea. Joan den urtean Jexux Begiristain eta Miren Zaldua maisu-maistren agurra izan bazen aurten hainbeste urtetan eskola izandakolari agur esango zaio seguruenik.

Aspaldi honetan behin baino gehiagotan hitz egin dugu gai honi buruz. Akordioa dela eta ez dela, hor ibili dira gora eta behera eta badirudi datorren ikasturtean egoitza berria izango dutela auzoko haurrek. Elizako lokaletan egin behar diren lanak zehaztu dituzte eta badirudi Usurbilgo udalean

egin zen azken bileretako batean lan hauek eman dituztela.

Beraz, lanean laister hasten badira 1998/99 ikasturtean berrikuntza galanta izango dute auzoko ikasle txikiak.

Arrate zahar egoitzatik ere zerbait jaso dut. Izan ere ekainaren 27an Aginaga utzi eta Seguraino joan zitzaizkigun gure jubilaetuak. Beste batzuek berriz, eskulanean ikastaroa amaitu dute. Joan den ekainaren 24an, San Juan egu-

nean, egin zuten batzuek despedidako afari merienda eta datorren astean egitekoak dira besteak. Udazkenean lan hauen erakusketa ikusi beharko dugu!



ZUBIETA

Festa kontuak

Xabier Arregi



Aurten izan dugu herri-festa San Juan bezperan. Urteak ziren surik egiten ez zela plazan, baina aurten Zubieta Pilota Elkartek antolatuta festa polita ospatu genuen. Hirurogei bat lagun elkartu

ginen eskola txikian. Ondo afaldu, sua piztu eta giro lasai ederrean pasa genuen guk afaloste.

Bistan da, bai, festarako animoak berotzen ari direla. Esan digutenez, datorren uztailaren 12an Ilgarren pelota joko zaharren eguna antolatu dute Zubieta Pilota Elkartekoek. Lehena, gogoan izango duzue, Usurbilen ospatu zen. Bigarrena, berriz, Zubietan.

Izango omen da oraingoan ere errebotea, joko-garbia, laxoa, musika, jakia, animazioa, eta abarra. Aukera polita izango da plaza libreko joko horiek ikusi, dantza puska bat egin eta lagun artean ttor-ttor aritzeko.

Festarako edo, behinik behin, pozteko motiboa eman digu **Olatz De Migel** gazteak. Olatzek 1998ko Urruzuno literatura lehiaketako saria irabazi du poesia arloan. Besteak beste, Hungariarako 10 eguneko bidaia egokitu zaio, eta saritutako lana Sagastiberri saileko liburuan argitaratuko da. Zorionak Olatz!



Joseba Tapia: "Lasartekoa bandaiz ere usurbildarra sentitzen naiz"

Orain dela 34 urte Lasarten jaioa. Asteasuko

Muttubiyako Amonaren pilarmonika eta Eleuterio eta Joanito Tapia osaben soinua, eta Zaldibiko Okobioko Mikel Usabiaga osabaren soinua eta kitarra entzunda, Joseba bera ere soinujolea izatea ez da harritzekoa.

Zuei segitzea ez da erraza, atzo rock-banda bat zineten, gaur trikitixa bikotea.

Erromeriek aspertu eta kasualitatez, Tapia eta Leturia talde elektrikoa bilakatu zen. Trikitixa protagonista izatetik, taldeko beste musika tresnen pareko izatera pasa zen. Garai hartan jende guztia rock jaialdietara joaten zen. Bi diskotako esperientzia izanda etekin onak jaso ditugu. Orain lehenengo bideetik jarraitzeko asmoa dugu. Ez dakit honek zer emango duen, bide bat, aldaketa bat... ez dakit arrakastarik izango duen ere. Gure gustoko gauza bat da behintzat eta aspalditik egiteko gogoia genuen. Horregatik soinua eta panderoarekin egingadako disko bat atera dugu.

Disko berrian lehen entzundako doinu zahar asko daude, hitzak ere bai... aukeraketa zerren arabera egin duzue?

Disko hau antologia bat da, bildu gabe egon den errepertorioa. Txapelketetako diskoetan jasoak batzuk, belarri-belarri etorritakoak eta inoiz grabatu gabek bestek. Oinarrizko piezak aukeratu ditugu, nire inguruan ezagutu izan ditudan fandango eta arin-arinak. Egilea ezagutzen ez den materiala gehiena, pieza zaharrak eta berriagoak; txistutik, musika bandetatik, soinua haunditik etorritakoak. Oraindik bildu gabeko fandango eta arin-arin ugari



dago eta horien bilketan animatzeko lehenengo pausoa izan daiteke.

Soinu txikiaren mundu bukolikoa, Elgeta eta Lajaren garaiakoa, posible al da gaur egun?

Gu ez gabilta garai bateko ohiturak berreskuratu nahian; gurea ez da kontserbadore aldera jotako mugimendu bat. Hala ere, bide horretara itzultzeko arazoak badaude. Kanpoan festa era oso polita ezagutu dugu. Parte hartzeaz gain gozatu egin dugu, garai bateko dantzeekin jendeak zer ondo pasatzen duen ikusiaz gozatu. Euskal Herrian, hegoaldean, horren falta haundia sumatu dut. Gaur egun dantzarekin oso lotura gutxi dago eta festa klase hori berreskuratu nahi dugu. Telebistak, irratiak, Euskadi Gaztea etab.-en bitartez EEBBetatik eta Ingalaterratik datorren inbasio kulturalari aurre egiteko aukera bat ere bada gurea.

Beraz, kultura erresistentzia al da?

Bai. Nik uste dut ezinbestekoa dela nolabaiteko erresistentzia. Ondo edo gaizki erresistentzia

politiko bat badago baina kulturalik ez. Horrez gain, erresistentzia politikoa lantzen dutenek erresistentzia kulturala ez dute aintzakotzat hartzen.

Erresistentzia irautea da. Hala ere irautetik bizitzera pasa beharko genuke. Hori al da zuek dakarkizuena?

Helburua, beste modu batera ondo pasatzea da eta zergatik ez lehen egiten zen modura? Gure mundua da, txikitatik bizi izan duguna. Hori transmititzea iraultza ederra litzateke gaur egun. Marketing-a da garrantzitsuena. Honela, espektakulua landu izanda. Guk eszenario horietatik aparteko festetan ahalmen gehiago dugula iruditzen zait. Festa txikietan ere zerbait ausarta eta eraginkorra egin daiteke.

Gero eta eszenario haundigoetan ari da trikitixa, orkestra sinfoniko batekin ere ikusi dugu. Zuek proposatzen dituzuen eszenario berri horiek zein dira?

Justu horien kontrakoak. Ez kontra egon behar delako. Aukera zabaldu nahi dugu eta gure tartea masiboa ez den festa antolatzea da. Frontoiak,

futbol zelaiak... leku haundiak ez dira gure eszenatokiak izango. Toki estuagoak, jendearekin gertuago egongo garen lekuak aukeratuko ditugu. Hala ere ez da festa partikularra guk proposatu nahi duguna, gertuago, ondo komunikatzeko eran egongo garen festa txikiak baizik.

Festa beroagoa akaso?

Bai, jendearen parte hartze aktiboagoa bilatu nahi dugu. Bizitzeko grina hori, egunerokotasunetik aldentzeko proposamen on bat izan da urte askotan eta orain ere ederra litzateke.

Euskal musikan zerbaite interesgarria gertatzen ari al da azkenaldian?

Orain kontzertuen beherakada nabarmena ote dator?. Kontzertua eman nahi duenak lan gehiago egin beharko dugu, proposamenak landuagoa behar du izan. Oso luzea litzateke hau esplikatzeko.

Badago lehen aipatutako inbasio kulturala eta horrek lan gutxi egiten du euskal taldeak bultzatzerakoan. Gaur egun, Euskal Herriko irrati euskaldun eta erdaldun guztiak musika komertzialena zabaltzen dute, komertziala zentzurik txarrean. Lan hori euskal taldeen alde egingo balitz...

Trikitilarien artean badago bertsolarien hitzak jartzeko ohitura. Literaturak ez al du gehiagorako ematen?

Hitzetaz baino musikaz gehiago arduratzen da. Bertsolariengana jotzen da eta literaturarekin kunplitu dela uste da. Literatura askoz erabilgarriagoa eta interesgarriagoa izan behar du musikariontzat. Bertsolariak forma batzuk eta bizio batzuk dituzte. Horregatik komunikaziorako dagoen espektro zabalago hori ezagutzeko interesgarria litzateke. Hala ere, batzutan, bertsolariengana jo eta hauek hitzak egitea eskertzekoa da batzuetan.

Berdina al da Turinen, Vancouverren edo San Estebanen jotzea?


Ez da berdina. Niretzat askoz errazagoa da kanpoan jotzea. Jendea musika tradizionala entzutea ohituago dago. Egiten dugun musika eta kantatzen dugun hizkuntzan kantatzen dugulako daude interesatuta folkzaleak. Jendeak kanpoan Euskal Herriko musika zer den jakin nahi du. Hemen hutsune handia dago horretan. Hego Euskal Herrian jendeak musika tradizionala zer den ez daki eta Mikel Laboa, Oskorri eta Benito Lertxundi aipatzen ditu. Gure nazionalismoa hain dago kolpatua non jendea erakartzeko sinboloak behar baititu. Horretarako interesatzen zaizkion taldeak aukeratzen ditu, berdina da estilo bat edo beste. Askotan musika tradizionala gogorra da eta hori entzun ahal izateko lan handia egin beharko genuke.

Jakoba Errekondo

- ✘ Nahiz bertakoa ez izan, Usurbildarra sentitzen da.
- ✘ 15 urte inguru zituenetik hemen dabil gora eta behera. Edade garrantzitsuenean hemen galdu du denbora eta horretan harrokeri pixka bat gelditu omen zaio.
- ✘ Herri honek euskal sena handia daukala, baina aldi berean itxitasun asko ikusten dela dio.
- ✘ Herri euskaldun eta abertzale batean bizitzea nahikoa dela pentsatzen duen jende asko dagoela dio. "Egoera hau bera ez ote da aurrera egiteko oztopo?"

Zer iruditzen zaizu gaurko Usurbilgo panorama?

Alde batetik gustatzen zaizkit igandero egiten diren festak baino beste aldetik aipatzen diren sloganak askotan harritu egiten naute. Adibidez, frontoiaren atzean "intsumisioa soldaduskari eta erdarari" jartzen duen pintada bat ikusi dut. Bere hizkuntzaren alde ari den inork hori ezin duela esan uste dut nik. Gure hizkuntzaren alde defentsarik zorrotzena hizkuntzaren defentsa da, ez hizkuntza bakar baten defentsa, baizik eta munduan dauden hizkuntza guztiak bere aukera izan dezaten. Gure etsaia ez da erdara, ezta frantsesa ere, baizik eta hizkuntzen kontrako edozein politika da kaltegarria. Inondik ere ezin da esan intsumisioa erdarari, hau onartuko bagenu beste batek "intsumisioa euskarari" esatea onartu beharko genuke. Sloganetan ezin da motza izan, azkarrak izan behar dugu.



Udalak Ugarteko pabilioi bat erosi dezake

Udala, Labe-goxo okindegiak (lehengo Labe-txiki) Ugarte industrialdean duen pabelioia erosteko akordio batera iritsi da honen jabeekin. Aldamenen beste lokal bat dauka udalak eta pabilioia hau salmentan zegoela ikusita erosteko tratua egin du udalak.

Lokal hau udalak Ugarten duen beste pabilioi baten ondoan dago. Labe-goxo Zumartegi industrialdera pasadenez Ugartekoa salgai jarri zuten eta herriko ordezkariak pabilioi hau erostea komenigarria ikusi dute. Horregatik, jabeekin adostasun batera iritsi eta erosteko konpromezua hartu dute.

Hala ere, tramite ugari egin behar dira oraindik. Lehendabizi plenoan onartu behar da erabaki hau eta gero kreditu aldatzarekin lotu etab.

Guztira 17 milioi ordainduko ditu udalak bi solairu eta 155 metro karratuko azalera duen pabilioi honengatik. Izan ere udalari interesgarria iruditu zaio luzera begira lokal hau erostea. **Joxe Antonio**



Altuna alkatearen esanetan, "oraindik ez dugu erabaki zer erabilpen eman diezaioketgun. Epe luzera, udalarenak diren gauzak gordetzeko erabiliko dugu".

URDAIAGAKO KOMUNAK GARBITZEKO PERTSONA

Urdaiaga auzoan komun publikoak jarri dituzte orain dela gutxi Leizekalde parkeko aparkalekuaren txoko batean. Udalak komun berri horien garbitasuna eta kontrola eramateko pertsona bat behar du. Pertsona honek komunak ireki eta itxi beharko ditu eta horrez gain garbitasuna ere bere esku egongo da. Lan hau egin nahi duenak udalean eman beharko du izena uztailaren 10a baino lehen. Aurkezten dire guztien artean zozketa egingo da. Informazio gehiago udalean.

ATXEGA JAUREGIKO JATETXEAREKIN AURRERA

Atxega jauregia alkilerrean hartu dutenek jate-xea haunditu nahi dute. Atxega jauregiaren ondoan sukaldea eta almazena edukitzeko tokia bat egin nahi dute jauregiko behe solairu osoa jatetxe modura jartzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak jauregiaren jabe berriek proposatutako ideiak onartu dituzte nahiz eta baldintza nagusi bat jarri dien: sukalde eta almazena ezin dute jauregiari itsatsita egon. Orain material aldetik etab. akordio batera iritsi behar dute.


PARIS ETXE ATZEKO URBANIZAZIO PROIEKTUA

Epai mahaiak egin zuen proposamena joan den ekainaren 23ko plenoan aztertu ondoren, Paris etxe atzeko espazio librea urbanizatzeko proiektua Hondarribiako taldeari eman zaio. Jesus Arrecubieta, Mariano Benavente eta Ricardo Ruiz arkitektoa eta Josune Urroz interioristak beren ideian oinarrituta egin beharko dute parkearen proiektua. Bestalde, 250.000 pezetako bigarren saria Iñaki Zalakain arkitektoari ematea erabaki zuen udalak azken plenoan.

USURBIL
O P T I K A



Irazu kalea, 9-11. 20170 Usurbil
Tlf. eta Faxa: 37 02 69(Gipuzkoa)



Ekaitz

Ondo pasa festetan!

Bideo eta Argazkiak

Usurbil

tlf 36 14 87

OIARTZUN

PORTULARRUME

**ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK**

Santixabel on!

Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 943 36 52 99



S antixabelak 98

Usurbil 46.zk. Noaua!

4

FALTA

1998ko ekainak 29



Ai Ixabel Ixabel, Ixabel guria...

Iritsi dira Santixabelak. Urtea azkar joaten dela, bai horixe. Bat bukatzerako bestea antolatzen hasi behar, hau da marka hau! Ez pentsa azken urteetako Santixabelak eta aurtengoan artean desberdintasun nabariak daudenik, hemen betikoak ibiltzen gara lanean eta ideia berriak gustora hartuko bagenitu ere zure zain egon behar badugu, ederki gaudegu!

Esandakoa, aurtengo programa eskuetan hartu eta egunez-egun azterketa sakona egiten baduzu baietz asmatu zer esango duzun? Betikoa, ez dago aldaketarik. Aurrekontua ere joan den urtekoaren berdina dela esango dizugu 5 milioi pezetakoa.

Eta non dira ba berrikuntzak? Ekainaren 30ean, ondo begiratu baduzue, "Usurbildarrak daukate ekitaldia" irakurriko zenuen. Adi egon, ezustekoak izan daitezke eta. Hurrengo egunean berriz, Irri abesbatzakoek udaletxeko balkoira igo eta Santixabelei hasiera emango

diete ikurrinaren igoeraz. GORA SANTIXABEL!

Aurten hirugarren urtez jarraian soka-dantza izango da Santixabel egunean. Santixabel jaiak antolatzeko bildu ginenean dantzariak tabernariak izan zitezela proposatu ziguten eta beste proposamenik ez zegoenez aurrera, tabernariak egin dezatela soka-dantza, guk barre pixka bat egiten dugun bitartean.

Azkenik 1998ko Santixabeletan idi-demaz gozatzeko

aukera izango da. Arratzain eta Egioleta aurrez-aurre.

Santixabelak irauten duten bost egunetan guztiok gozatzea da gure helburua. Herriko festak izanda, usurbildar guztion jaiak izan daitezen ahalegindu gara. Ahalegin horretan asmatutakoa ongi etorria izan bedi, asmatu ez duguna datorren urtean zuzentzen saiatuko gara. Zorionak guztioi eta ondo pasa Santixabelak.

Usurbilgo Jai Batzordea



AIZPURUA OKINDEGIA

Festak ondo pasa!

Nagusia ☎ 943 36 12 20



ZUMETA JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaski entsalada hozberoa trufa zaparez
- Zapo txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, ondo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
- Etxeko azkenburuko degustazioa
- Ardo berezia eta kafea

3.200 pta.

TXAPARTEGI HARATEGIA

Festa zoriontsuak igaro guztiok!

Kale Nagusia ☎ 943 36 48 00

RAMON HARATEGIA

Ondo ibili herriko festetan!

Bordaberri, 3 Usurbil ☎ 943 36 29 70



ALDAMU

Kale Nagusia, 2 - Tel.: 943 37 27 95

Santixabel zoriontsuak opa dizkizuegu usurbildar guztioi!

Zapatak, Kanpinak, Kremaierak (poltsak, zamarrak, galtzak...)

Giltzak kopiatzen ditugu



Solarium Depilazioa

Peluqueria Ileapaindegia

ONDO PASA SANTIXABELAK!

Nagusia, 2 ☎ 943 37 28 44

Tabernariak marka guztiak hausten



Ez dira bost edo sei, hamabi baizik. Guztiak tabernariak edo lan horretan aritutakoak dira. Uztailaren 2an, Santixabel egunean, alpargatak jantzi eta udaletxe aurrean Soka dantza dantzatu beharko dute herritarren aurrean; ordu batez dantzari bihurtuko dira. Aurten ere **Arantxa Urkia** eta **Iñaki Urkia** izan dituzte maisu-maistra. Zeinek dantza egingo duten? **Oskar Uribe, Oskar Aierbe, Joseba Aierbe, Haritz Jauregi, Larraitx Sarasola, Paulino Ibargoien, Arantza Unanue, Mikel Rekondo, Mikel Arriaga, Iban Salsamendi, Maite eta Mari Jose Sanchezek.** Hori bai, dantza saioa orduerdia aurreratu dute, gero tabernan lana egin behar omen dute eta.

Programatik kanpoko entzierro alternatiboa

Azken urte hauetan sokamuturra edo goizaldeko xexenak desagertu egin dira Santixabeletako programetatik. Garai batean arrakasta handia zuen Kale Nagusian egiten zen sokamuturrak, baita Etxealdian edo Atxegaldeko zelaian izaten ziren zezenketek ere. Orain, nahiz eta programan ez agertu, beste entzierro mota bat egiten dute zenbait usurbildarrek. Goizaldera, eta San Ferminei aurrea hartuz, entzierroa egin ohi dute EuskoTreneko autobusarekin. Hau egitea ohitura bihurtzen ari ote da? Joan den urtean bi egunetan egin zuten, aurten ere izango ote da entzierrorik? Tentuz ibili ustekabeen zezenak harrapatuko zaituzte eta.



TABERNA
JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL

Ugartea

SAGARDOTEGIA
ERRETEGIA



Santixabel zoriontsuak!

Tif: 36 26 73 - 36 12 03 USURBIL

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
IOSU
Ugaldea poligonoa 36 - 2º Esk
Usurbil - Gipuzkoa 37 19 54

INDUSTRI ETA
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

SAGASTI

edaritegia

Aukera zabala
bokadilotan

Zorionak eta
ondo pasa
herriko jaietan!



FESTA
ZORIONTSUAK
PASA!

Kale Nagusia, 2
Tif 37 33 48
943 37 09 13
USURBIL

okindegia
gozotegia

MARY

Gaztañazpi, 1 - Tel: 943 37 10 80

USURBIL

Santixabel
zoriontsuak
denoi!

Ekainak 30 asteartea Umeen eguna

Goizeko 10.00etan **umeen jokuak**. Ondoren hamaiketakoa.

Eguerdian **buruhaundiak** trikitilariekin.

Arratsaldeko 17.00etan umeentzat **Hanka gorri taldea**, Bonberoak ikuskizunarekin.

19.30etan **txokolatada**.

Ondoren **buruhaundiak eta erraldoiak** trikitilarietz lagunduta.

23.00etan "**Usurbildarrak daukate**" ekitaldia.

Uztailak 1 asteazkena Santixabel bezpera

Goizean, **Mihixe Arte Eskolak** antolatutako **merkatu txikia**.

Arratsaldean **txoznak irekiko dira**: etxeferoak, herriko trikitilariak eta poteo herrikoia.

18.00etan "**maskotaren igoera**".

19.00etan **buruhaundi-erraldoiak** txistulariekin.

Baita ere **Sambo** Olardo polikiroldegian.

24.00etan **ikurrinaren igoera** aurten 25. urteurrena ospatzen duen **Irri abesbatzaren eskutik**.

Ondoren **tanborrada**.

Jarraian **Etzakit** taldearekin dantzaldia.

Uztailak 2 osteguna Santixabel eguna

Egun osoz **dultzaineroak eta trikitilariak**.

Goizean **esnadeia** txistulariekin.

11.00etan **Meza Nagusia**.

Ondoren **ohorezko soka dantza** egingo dute herriko tabernariak.

Jarraian **salda eta lore banaketa**.

16.30etan, txoznetan, III. **Santixabel mus txapelketa** (16.00etan eman behar da izena).

17.00etan **pelota partiduak**;

Afizionatuak: **Huizi, Zarauz/Elotz, Sarasua**.

Profesionalak: **Esain, Goñi III/Galartza V, Otxandorena**.

Ondoren **gaztetxoan tanborrada**.

Usurbilgo piperren dastaketa.

Buruhaundi eta erraldoiak trikitilariekin.

21.00etan **txoznetan afaria**.

Ondoren **Morau kantautorea**, karaokea, jokuak...

Gauak 23.00etan **Laiotz taldearekin dantzaldia**.

Uztailak 3 ostirala oilasko biltzaileen eguna

Goizeko 6.00etan **txokolatada eta oilasko biltzaileen irteera**.

**TRUKE
R JANTZIAK
U Santixabelak
K ondo pasa!
E Festen ondoren beharpenak!**
Erdiko kalea, 2
Tel:943 37 34 81


**LE MANS
ASEGURUAK**

PIKABEA AGENTZIA

- Istripuak
- Autoak
- Etxeak
- Komertzioak...
- Prezio onean
- Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe


Jai zoriontsuak usurbildar guztioi!

Uzturre plaza, 8 LASARTE-ORIA Tlf 943 37 11 18/37 19 97

ARRYTI
harategia

SANTIXABEL
ZORIONTSUAK
PASA!

Kale Nagusia, 2



Telf.: 943 37 04 81

LURDES
FRUTAK

Festa zoriontsuak!

Irailaren 1etik 15era oporrak

Bizkarre, 3
Usurbil

☎ 37 23 68

**EGIN ITZAZU
ZURE
EROSKETAK
HERRIKO
DENDETAN!**

9.00eta **esnadeia** trikitilariekin.
 Eguerdiko 12.30etan **oilasko biltzaileen etorrera**.
 14.00etan **bazkaria**.
 Arratsaldeko 16.30etan **Igel jokoa Santixabel VIII. Saria** Zahar egoitza berriaren aurrean.
 18.00etan **Goitibera**.
 19.30etan **buruhaundi eta erraldoiak** trikitilari-
 kin.
 Gauean **Rock jaialdia** herriko pelotalekuan; **Zea Mays, King Mafrundi eta Joxe Ripiau**.
 23.00etan **Eztei taldearekin dantzaldia** Joxe Martin Sagardiaren enparantzan.

Uztailak 4, larunbata, Euskal preso eta errefuxiatuen eguna

9.00etan **esnadeia** txistulariekin.
 11.30etan **Toka txapelketa** dema plazan.
 14.00etan **Zikiro jana**.
 16.00etan **gaztetxo**en futbol txapelketa finalak.
 18.00etan Euskal Presoak E.H.ra aldarrikatzeko **koadrilen arteko herri jokoa** (txingak, lokotxak, toka, sokatira, etb.).
 19.30etan **buruhaundi eta erraldoiak** Taratxun txarangarekin.
 22.30etan **bertso saioa** herriko pelotalekuan; **Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga eta Angel Mari Peñagarikano**. Gaijartzailea Joxe Mari Izeta.

Saioan zehar XXII. Santixabel bertsopaper lehia-
 ketako sariak .
 Gauean Usurbilgo kaleetan, **Taratxun txaranga**.
 Ondoren **Imuntzo eta Belokirekin** dantzaldia.
 Goizeko 1.00etan **Euskal preso errefuxiatu eta deportatuei omenaldia eta kalejira**.
 Goizaldera **diskoteka**.

Uztailak 5 igandea zaharren eguna

Dultzaineroak eta trikitilariak herriko kaleetan egun guztian zehar.
Esnadeia txistulariekin.
 11.00eta **Meza Nagusia**.
 Ondoren frontoian **Usurbilgo dantzarien emenaldia**.
 14.00etan **zaharren bazkaria** Saizarren.
 Arratsaldeko 16.00etan Aitzaga Kultur Elkarteak antolatutako **gomazko pelotarekin jokatu den txapelketako azken partidua**.
 Ondoren **Idi-dema; Txomin Alkorta eta Joxe Mari Mendiluzeren idi pareekin**.
 20.00etan **buruhandi eta erraldoiak**.
 Txoznetan, 20.00etan, **Erramun Martikorena**.
 21.00etan **Amaia eta Kristina trikitilariak**.
 24.00etan **maskota erretzea**.
 Ondoren eta goizaldera arte, **Izotz taldearekin dantzaldia**.

ARGILAN

Etxetresna elektrikoak

Santixabel zoriontsuak opa dizkizuegu!

Kontzeju zaharra, 13
 Usurbil ☎ 943 36 13 80

IKUTZA

Santixabel zoriontsuak opa dizkizuegu denoi!

aroztegia

Aginagatik Kalezarrera lekualdatu gara, eta orain Ugarte industrialdean gaude zuen zerbitzura

Tel. eta Faxe: 943 37 12 21

Andatza

karrozeria

Gumer Sánchez

Festa zoriontsuak!

Osinalde industrialdea
 Errota Berri kalea ☎ 943 36 36 77
 USURBIL

IRRATI TABERNA

Santixabeletan ere etorri zaitez gurera "pinta" bat hartzera"!

Santixabeletan beti lanean


Hik jai eta nik lan. Horrelako zerbait gertatzen zaie Santixabeletan, derrigorrez, egunero lan egin behar dutenei. Usurbildarrek Santixabelak pakean, normaltasunez eta garbitasunean pasa dituzaten, jai giroaz ahaztu eta herrian lan egin behar izaten dutenak badaude. Nork ez ditu ikusi udaltzainak jaietan gauean lanean? Zenbat aldiz ikusi ditugu kalegarbitzaileak goizaldera kaleak garbitzen?

Pello Zubeldia udaltzainak bederatzi turte daramatza Usurbilgo udaltzaingoan eta Santixabeletan lan egitea tokatu izan zaio beti. "Festetako astea aste berezi bat balitz bezala hartzen dugu. Festak direnean suposatzen da udaltzaintzat lan gehiago egon behar duela, jende gehiago dago, trafiko haundiagoa... Gainera Santixabeletan ezin dugu jai hartu, horrela erabaki genuen".

Santixabeletan udaltzainetarik ez da inor libratzen. Festetako programan dauden ekitaldien arabera egiten dute

lan. "Tanborrada dagoenean guztiok egon behar izaten dugu. Santixabel goizean berriz, bi edo hiruk ez dute lan egiten. Ekitaldiek markatzen digute egin beharreko lana. Momentu batean ekitaldi batek hiru udaltzain egotea eskatzen badu hiruk egon beharko dugu". Gauean ere lan egiten dute. Gehienetan bi udaltzain egoten dira eta txandakatu egiten dira. Hala ere beharrak eskatzen badu (tanborrada) guztiok egon behar izaten dute.

Santixabeletan lan egin beharra duela aspaldi onartu zuen Pellok. "Disfrutatzeke era oso desberdina da. Besteak festa giroan daude eta gu lanean. Hala ere, jai edukita ere, udaltzainak herriko festetan mugatuta gaude. Besteak bezala ezin dugu desmadratu. Horregatik beste festetan gehiago disfrutatu izan dut he-mengoetan baino". Hala ere, berak Santixabeletan lan egiten badu ere ez da jaiak amaitzeko desi-



ratzen egoten. "Nik besteak bezala ez dudalako disfrutatu ez dut zertan Santixabele gorrotoa izan beharrik. Jendeari Santixabeletan ondo pasatzeko esango nioke".

Rafael Corral kale garbitzaileak ere Santixabeletan lan egin behar izaten du. Gazteak etxeraterakoan hasten da beren lana. Kale garbigailua hartu eta Santixabeletako egun batek uzten duen kaleko zikin-



mota guztietako errotuloak

IBILGAILUAK - ERAKUSTOKIAK
PANKARTAK - KARTELAK ...

Jaiak ondo pasa !

Kale nagusia, 2
Fax : 36 60 21

Santixabel on!

Elexpe

SOLARIUN
bono bereziak
ileapaindegia


Olarrondo kalea, 1 20170 USURBIL TLF 943 37 04 62

Jai zoriontsuak!



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi industrialdea
Aitezarra kalea, 1
Tel.:943 36 10 79 Usurbil



ARRANDEGIA
MIKEL

Gaztañazpi, 1 - Tel.: 943 36 63 56
USURBIL



ONDO PASA
SANTIXABELAK!

keria guztia garbitu behar izaten dute. "Goizeko 7.00etan sartu eta inguru guztia garbitu arte egiten dugu lan. Guk ezin izaten dugu geldirik egon, eguerdiko ekitaldiak hasi baino lehen garbitu behar izaten baitugu guztia". Hauek ez dute jaietan pentsatzeko denborarik izaten.

Rafaren esanetan Santixabeletan lan egitera ohituta dago dagoeneko. Gaur egun Andoain bizi da eta Usurbilgo jaietan juergan dabiltzala ikustean ez zaio festan murgiltzeko irrikirik sortzen. "Hala ere hemen bizi direnei gogorra egiten zaie Santixabeletan kale garbitzen aritzea. Batzuk zuzenean etortzen dira lanera. 7.00etan lanean hasi behar badute, 6.30etan gora joan, dutxatu eta lanera. Hasieran gogorra egiten da jende guztia festan ikusi eta zuk lanean jardun behar duzula ikustea, gero ordea, ohitu egiten zara".

Goizeko 7.00etan kalegarbitzaileak kaleak garbitzera irten-dakoan denetik ikusten omen dute. "Sekulako kaka daramaten asko ikusi ditut nik, lurlean botata ere bai... Horrez gain, egun hauetan biltzen den zikin-

keria izugarria da. Hiru makina toperaino bete izan ditugu, kristalak, plastikozko edalontziak... zikinkeria ugari sortzen da eguna amaitzerako". Orain, denbora ematen badie behintzat, ur mangera pasatzen dute, garbitasuna haundiagoa izan dadin. Santixabeletan lan asko egin behar izaten dute. "Eremu zabala da guk garbitu behar izaten duguna, ez frontoi ingurua bakarrik. Horregatik, pixkanaka-pixkanaka lana piltzen joaten da".

Jendeak eskoba hartu eta kaleak garbitzea erraza dela uste du, baina hori ez omen da horrela. Zazpi ordu eskoba


hartu eta kaleak garbitzen ibiltzea ez da txantxetako gauza. Rafaren arabera esperientziak gauza bat erakutsi omen dio urte hauetan. "Festetan eskobarekin kaleak garbitzeko lotsa kendu behar da. Hori galtzen dutenean eta beste lan baten antzekoa dela ikustean ondo egiten da lana". Pazientzia ere beharrezkoa da. "Festetan batzuk gure lana oztopatzen saiatzen dira. Zerbait esan eta gainontzeko guztia barruan gordetzen saiatzen gara. Hemengo jende gehiena ezagutzen dugu guk".

Josu Aranberri



Santixabel jai zoriontsuak opa dizkizue Ezker Batuak usurbildar guztioi!

EZKER BATUA 



USURBILGO
EUSKO ALKARTASUNA
Jai zoriontsuak herritar guztioi!



**LASARTE- ORIAKO
BATXILER INSTITUTUA**


- DBH
- LOGSE batxilergoak
 - Giza eta gizarte zientziak
 - Natur eta osasun zientziak
 - Teknologikoa
- Ziklo formatiboak
 - Gestio Administrazioa (Ziklo ertaina)
 - Administrazioa eta finantzak (Goi mailakoa)
- Unibertsitatera sartzeko prestakuntza 25 urtetik gorakoentzat

Telf: 943 37 28 52

Matrikulatzeko epea:
Uztailak 1-10
Goi zikloentzako:
Uztailak 21-22-23

Usurbilgo
**HERRI
BATASUNA** 

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu usurbildar guztioi eta agur bero bat gogoz kontra kanpoan zaudeten denoi!



EAJ PNV

EAJ-PNVk usurbildar guztioi jai alai
eta baketsuak opa dizkizue

OIARDO
UDAL KIROLDEGIA



Uztailaren 2an eta 3an itxita

Oporrak uztailaren 28tik
abuztuaren 24ra

USURBIL

TLF.: 943 37 24 98

Zure etorkizuna prestatzera animatu zaitez!

Lanbide Hastapenerako programaren 1998/99 ikastaroa martxan jartzerako doa Usurbilgo udala. 1994ko ekainaren 6an Astigarraga, Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek eskualdeko lanbide Hastapenerako ikastetxeek programa honetan elkarlanean aritzeko akordioa sinatu zuten. Aurtengo ikasturtean gazte ugari ibili dira tailer desberdinetan.

Lanbide Hastapenerako ikastetxearen helburua ofizio bat irakastea da, gerora lan-munduan sartzeko balio izango duen ofizio batean trebatzea hain zuzen ere. Horretarako, programa honek hainbat aukera eskaintzen ditu.

Lan munduan sartzeko aukera

Ofizio bateko hastapen ikastaroan sartzeaz gain, gazteek gustokoak edo gerora begira beharrezkoak izatera iritsi daitezkeen jardueretan parte hartzen dute (oinarrizko heziketa, gaurkotasan eta interes soziala duten gaien buruzko hitzaldiak, zinea, kirola, lanbidera zuzendutak irtenbideak...). Azken finean, lanbide bat ikasi daitezkeen lekua da, gero enpresetan praktikak eginez lan mundura integratzeko aukera ematen du.

Horretarako, eskualdeko L.H.I.ak, honako eskaintza egiten du datorren ikasturterako.



Ikasturte honetan 12 gazte ibili dira gozogintzako ikastaroan. Ileapaindegi-estetikan berriz, 15.

Margotze eta Ileapaindegi-estetika ikastaroa Usurbilgo L.H.I.n, Ibilgailuen txapa-pintura eta iturgintza Andoaingo L.H.I.n, igeltseritza eta mintegilorategiak Lasarte-Orian eta ibilgailuen mekanika Hernanin. Guztira 1000 ordu emango dira oinarrizko ikastaroan. Urriaren hasieran hasi eta ekaina bitartean jarduten dute, ikasturte normal bat izango balitz bezala. Gero, Foru Aldundiko Lan Sailak onartu ezker 450 orduko sakontze ikastaroa egingo litzateke. Bukatzeko, enpresetan gehienez 450 orduko praktikak egiteko aukera ere badago.

Aurten 12 gazte ibili dira Agerialde ikastetxean egiten den gozogintzako ikastaroan eta 15 ileapaindegi-estetikan. Horrez gain, eskualdeko beste ikastaroetan (iturgintza, igel-

tseritza...) ibili diren usurbildar gazteak ere asko izan dira.

Zeinek parte hartu dezakete programa hauetan? Udalerriko gazte guztiek parte hartu dezakete, baldintza hauek betetzen badituzte behintzat:

- Eskualdekoa izatea.
- 16-20 urte edukitzea (78-1-1/82-12-31)
- Gehienez Graduatu eskolarrera, REM1 eta FP1 gainditua izatea.
- Ikasketa reglatua utzi dutenak.
- Langabezian daudenak.
- Udaletxean eman daiteke izena eta horretarako bi epe irekiko dira: alde batetik ekainaren 15etik uztailaren 22ra eta irailaren 3tik 15era.

Idoia Beloki

JUANTXO

Burdindegia



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Kale nagusian gaude, 10. zenbakian!

BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK
ETA AUKERA ZABALA

Ondo ibili festetan!

Aritzeta, 2

Tel.: 943 37 10 42

XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Ondo pasa festak!

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78

15 minutuko geldialdia eta konzentrazioa



Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuz eta sakabanaketaren bidegabekeria eta injustizia salatuz, 15 minutuko geldialdia deitu zuten ekainaren 19an 12.00etatik 12.15era Euskal Herri osoan. Jarrera honekin euskal gizarteak Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzeko premia oihukatu nahi zen. Usurbilen, geldialdiaz gain, konzentrazioa egin zen ordu beran udaletxe aurrean. Horrez gain, kazuela-tapak, txapak, danborrak etab.ekin manifestazio burrundatsua burutu zen herriko kaleetan. 20.00etan frontoitik abiatu eta herriko kaleetan zehar zabaldu zen Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzeko oihua.

Festa giroa nagusi Kalezarko San Juanetan

Datorren urteko San Juanak arte! Honela agurtu ziren kalezartarrak joan den ekainaren 24an, San Juan egunean. Izan ere aurten inoiz baino lehenago izan dira San Juanak kalezarren. Ekainaren 19an hasi eta 24a bitartean festa giroa nagusitu da Kalezarren. Larunbat gaueko kontzertuak arrakasta handia izan zuen eta jende ugari bildu zen plazan. Ekainaren 23an, berriz, arratsaldean baserri baserri ibili ziren San Juan eskean Mendiluze eta Solozabal bertsolariekin.



Gure artera bilgunea firmak biltzen hasi da



Euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten lanean ari den **Gure artera** bilgunea sinadurak biltzen hasi da. Esan digutenez, helburua euskal presoak gure artera ekartzearen alde dauden ahalik eta herritar gehien sinadurak jasotzea da. Sinadurak liburu batean bildu eta Udalean aurkeztuko omen dituzte. San Juan egunean firma bilketarako mahaia Kalezarren jarri zuten; hurrena Santixabeletan jarriko dute eta horrela festarik festa herri guztia pasa arte. Bestalde, irailaren 19an Segoviara, **Ramon Uribe** bisitatzera joateko deialdia ere luzatu dute. Autobusa antolatuko dute.

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Jai zoriontsuak
usurbildar guztioi!

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

TXURRUT EDARITEGIA



TABERNA

ondo pasa **Santixabelak!**

San Esteban kalea, 1
Tel: 36 00 80

ZENDOIA-ENEA

TABERNA

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak,
eguneroko menuak eta
bokatak

Jai zoriontsuak!

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60

ZIORTZAREN KANPALDIA

Urteroko martxan aurtan ere Ziortza Gazte Elkarteak kanpaldia antolatu du Errioxan. Lehenengo txandako gazteak herriko festak amaitu eta handik bi egunera aterako dira Pelaloscintosea. Beraz, uztailaren 7an goizeko 9.00etan izango dute irteera. Hauekin batera, Billabonako gazteak joango dira lehen txanda honetan. Bigarren txandakoak uztailaren 19an joango dira haruntz, lehen txanda amaitzen dutenean hain zuzen ere.



Zaharren egoitza inauguratu dute behingoz. Azken Zehilabete honetan irekita bazegoen ere, ekainaren 21ean egin zuten inaugurazio ekitaldia. Meza nagusiaren ondoren, Gaztañagazpin dagoen zahar egoitzako lokal eta taberna bedeinkatu zituen apaizak. Han zeudenetatik batzuk bustialdi ederra hartu zuten egoitza bedeinkatzerakoan. Han bildu ziren besteak beste herriko ordezkariak, Gure Pakeako ordezkariak eta beste zahar egoitzetako arduradunak.

URRUZUNO LITERATUR SARIA

Olatz De Migel zubietar gazteak 1998ko Urruzuno literatur lehiaketako saria irabazi du poesia arloan. Honenbestez, Hungarian 10 egun pasa izango ditu Olatzek bidaia hori baita literatur sari honetako sarietako bat. Bestalde, saritutako lana Sagastiberri saileko liburuan argitaratuko da. Horrela bada, datorren urtean Olatz De Migel zubietarrak saria eskuratzeke aurkeztu dituen olerkiak irakurri ahal izango ditugu. Zorionak!



Joan den ekainaren 18an hormigoia zerman kamioi bat bidetik irten eta erriberara erori zen N-634 errepidean Galardiko gasolindegia-riaren parean. Aginaga aldetik Usurbila bidean zihola, dirudienez gurpila zulatu eta bide bazterreko petri-ila puskatu ondoren erriberara erori zen kamioia. Gidariak ez zuen zauri larriegirik izan.




San Juan bezpera ez zen Kalezarren baka-rrik ospatu, inguruko baserri eta auzoek ere ohitura zaharrari eutsi zioten. Zubieta bidean dauden baserrietan, Kalezarkoetan, Aginakoetan... bakoitzak bere San Juan sua piztu zuen ekainaren 23an, batzuek lehenago berandua- go besteek. Hala ere, seguru Kalezarkoak atera zituen su-garrak ez zituztela besteek atera.



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

Jai zoriontsuak
herriar guztioi! San Esteban
Tlf. 943 36 22 55



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Ondo
pasa
santixabelak!

Irazu kalea, 3 - Tlf. 943 37 00 13

Xabier Heras, judoan gero eta gustorago

Usurbilgo judo taldea sortu zenean 6 urte zituen Xabier Herasek. Garai hartan hasi zen Agerialden judo egiten, baina urte honetan egin duena lortzera iritsiko zenik ez zitzaion burutik pasatuko. Aurten Euskadiko txapelketa irabazi ondoren Espainiako txapelketan bigarren postua lortu du 50 kilo azpiko kategorian. 16 urte ditu eta judoan segitzeko gogo handia.

Gogoratzen al zara noiz eta nola hasi zinen judon?

5 edo 6 urterekin hasi nintzen. Lagun bat Lasarten judon ibiltzen zen eta taldea Usurbila etorri zenean guk ere judo ikasteko izena eman genuen. Garai hartan kirol honi buruz ezer askorik ez genekien. Agerialden hasi nintzen ikasten eta gero pasa ginen Oiardo kiroldegira.

Sakrifizio handia eskatzen al dio Judo egiteak Xabierri?

Gustatzen bazaizu ez dago horrenbesteko sakrifiziorik. Ni gustora joaten naizenez ezin naiz kexatu. Judo egiten hasi nintzenetik 10 urte pasa dira eta zenbat eta urte gehiago pasa gustorago egiten dut judo. Denborarekin gauzak ikasten zoaz eta gehiago dakizu.

Judoz gain beste kirolik egiten duzu?

Futbolean ere ibiltzen naiz Usurbil F.T.an. Hasieran bi kirolak egiten nituen baina bien-



tzat ez nuen denborarik. Horregatik futbolean jarraitzen badut ere entrenamendu gutxiagotara joaten naiz. Biak gustatzen zaizkit baina judo egitea nahiago dut.

Txapelketa asko irabazi dituzu 10 urte hauetan?

Aurten egin dut denboraldirik onena. Orain dela urte batzuk Gipuzkoako bigarren postua lortu nuen bakarka, taldeka berriz Euskadiko txapelketan lehen postua eskuratu genuen urte batean. Azken urteetan Euskadiko txapelketa jokatzera iristen nintzen baina ez nuen ezer egiten.

Aurten berriz, marka guztiak hautsi dituzu.

Baietz uste dut. Kadeteen Euskadiko txapelketan lehen postua eskuratu nuen eta lehen aldiz Espainiako txapelketa batera joateko txartela lortu nuen. Honela, Madrilen jokatu zen Espainiako txapel-

ketan bigarren gelditu nintzen. Txapelketa honetan hasieran nahikoa judo ona egin nuen eta kanporaketak gaintzen joan nintzen. Azkenean Kataluniakoaren aurka galdu nuen finala.

Horren ondo ibiltzea espero zenuen?

Euskadiko txapelketan zerbait garrantzitsua egin nezakeela banekien, hala ere Espainia mailan bigarren gelditzea ez nuen espero. Urduritasuna da nire etsairik haundiena.

Entrenatzaileak zer esaten dizu?

Hobetu dudala esaten dit, baina gehiago hobetu behar dudala ere bai. Pixu gutxi dudanez ni baino haundiagoak gaintzea zailagoa egiten zait. Hurrengo urtean pisu haundiagoak izango dira, beraz gehiago jaten hasi beharko dut.

Osasunez urratu aurtengo santixabelak!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA


Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Iturgintza - Gasa - Berokuntza



J. Orbegozo



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 943 37 29 37 - 36 59 26

“Quebrantahuesos” probari aurre eginez

Ez da Frantziako toureko etapa bat, baina irailean Espainiako itzuliko 13. etaparen ibilbide berdina du. Sabiñanigon hasi eta bukatzen den egun bateko nazioarteko txirrindularitza proba gogor bat da, eta ez nolana nahikoa gainera. Iaz 3300 txirrindulari izan ziren hasieran eta aurten ere ez ziren gutxiago. Tartean aurkitu genituen sei usurbildar.

“Quebrantahuesos” txirrindularitza proba entzuna izango duzue noizbait. Sabiñanigon hasi eta amaitzen den proba honek 205 kilometro ditu eta tartean Somport, Marie-Blanche, Portalet eta Hoz mendiak igo behar izaten dira bizikletan, guztiak 1000 metro baino altuagokoak.

Aurten sei usurbildarrek parte hartu zuten ekainaren 20an

egin zen proba gogor honetan. **Jon Carbayeda, Luis Mari Irazusta, Amador Granados, Luis Mari Lizaso, Imanol Azurmendi eta Anjel Garcia** izan ziren 205 kilometro horiei aurre egitera animatu ziren txirrindulariak.

Aurtengo edizioa gogorra izan da oso. **Luis Mari Irazustaren** esanetan beroak asko gogortu zuen berez gogorra den proba hau. *“Izugarrizko beroa egiten zuen. Orain dela urte batzuk mendi batetik 2 gradurekin pasa ginen. Aurten 32 gradu egiten zituen 1600-1700 metro-tan. Behean berriz, jakintzazu ba!”*.


Hala ere, usurbilgo txirrindulariak ez ziren batere gaizki ibili. Bestela galdetu **Jon Carbayedari**. 3000 partehartzaile baino gehiago izan

arren, 7. postua eskuratu zuen. Guztira 6 ordu eta 10 minutu behar izan zituen proba amaitzeko, irabazleak baino minutu bat edo bi gehiago.

Luis Mari Irazusta eta **Amador Granados**ek, ez zuten proba amaitu. Luis Mariaren esanetan, *“Quebrantahuesos egiten nuen hirugarren aldia zen baina Portalet mendia igotzean uztea erabaki nuen. Beroa jasangaitza zen. Momentu hartan hurrengo urtean ez nuela parte hartuko esan nion nire buruari. Hala ere, ikusiko dugu datorren urtean zer gertatzen den”*

Hauek izan ziren usurbildarrek lortutako postu eta denborak:

7- Jon Carbayeda 6h 10´
643- Imanol Azurmendi 7h 59´
1757- L. Mari Lizaso 9h 17´
2937- Anjel Garcia 11h 57´



PINTURAK
FERNANDO

Bizkarre, 6 Usurbil
 Tlf. 36 60 19 / 36 34 60

Ondo pasa!
 Margoak eta
 paperak

Sintasola,
 moketa,
 kortxoak eta
 tarima
 jartzen dira

ARRATE
 ZAHAR EGOITZA
TABERNA-JATETXEA

Jai zoriontsuak usurbildar guztioi!


Aginaga

Tlf. 943 36 63 40

1957KO POSTERRAK OPARI!!



KALEZAR (San Juanak)




KALEBERRI (Santixabelak)




ZUBIETA (Santioak)



URDAIAGA (San Estebanak)



SANTUENEA



AGINAGA (San Praxkuak)

- Auzo bakoitzeko jaietan *NOAUA!* rekin batera zure auzoaren 1957ko argazkia jasoko duzu dohain.
- Bazkideek dohain eta tolestu gabe jasoko dituzte poster guztiak.
- Bazkide ez direnek 200 pezetatatan erosi ahal izango dituzte Noaua! Kultur Elkartearen egoitzan beste auzoetako posterrak.

Sindikatuak, baseritarren supermerkatua

1 908. urtean sortu zen sindikatua "Sindicato Agrícola Alkartasuna" izenarekin. Gaur egun, bere garaian aldatzea asko kostata, "Usurbilgo Alkartasuna Nekazal Kooperatiba Elkarteak" izenarekin lan egiten dute. Beraien helburua, herriko baserriar eta nekazariak banaka erosi beharrean, sindikatuaren bidez erosketak elkartuta egitea da. Gero prezio hobean banatzen dute erositakoa.

Hau izan da, eta izaten da oraindik, edozein sindikatu edo nekazari elkarteren helburua, baina bertako langileak den **Kontxi Aginagaren** esanetan, gaur egun zaila da horrela funtzionatzea: "Berez sindikatuaren eginbeharra orokorki erosi eta gero bazkideei prezio merkeagoan saltzea da. Baina gaur egun hau lortzea ez da batere erraza. Gero eta baserri gutxiago dago. Bazkideek prezio berdina ordaintzen badute ere, aipatzekoa da oraindik sindikatuak beste almazenen prezioak eutsi egiten dituela."

Gaur egun 95 bazkide ditu Alkartasuna Kooperatibak eta bi langile. Hauetaz gain, ordea, bazkide ez diren beste hainbeste edota bezero gehiagok erabiltzen dituzte sindikatuaren zerbitzuak. Kontxiren esanetan, gaur egun ezinezkoa litzateke bazkideekin bakarrik elkartea aurrera ateratzea. Hori bai,



nahiz eta prezioan desberdintasun haundiegirik ez nabarmentu batzuentzat eta besteentzat, lehenengoek tratatu berezia jasotzen dute: "adibidez, ordaintzeko epeak desberdinak izaten dira bazkideentzat, tarte haundiagoa uzten diegu".

Sindikatura sartu ezker, milaka gauza aurkitu ditzakegu bertan. Baserri mundua eta bizimoldea aldatzen joan direnez, salgai dauden produktuak ere aldatu egin dira. Kontxik adierazten duen modura: "hemen beti gehien saldu dena pentsua izan da, baina gaur egun salmenten beherakada nabarmena nabaritu dugu baserrien gutxitzearekin batera. Orain, aldiz, ongarririk, haziak, sulfatoak,

botikak eta burdindegiko tresnak saltzen ditugu. Hauetaz gain, patata edota oiloak biltzen ditugunean ere saltzen dira. Gauzak izugarri aldatu dira; orain behiek dirua eman beharrean, txakurrek ematen dute, modan baitago txakur-errentzako pentsua erostea".

Sindikatuaren etorkizunagatik galdetzean gauzak nahikoa beltzak ikusten dira. "Baserri haundietara produktua zuzenki eramaten da gaur egun, beraz, gure merkatuaren gehiengoa 8-10 behi dituzten baserriak dira. Eta hain juxtu hauek ari dira desageritzen. Gainera, produktuetan izugarriko berrikuntzak daude eta askotan ezin diozu aurre egin".

Idoia Torregarai



Ondo pasa
santixabelak!

ERREKONDO EGYRZERRA

Eraikuntzarako:
Haritza
Piñu Alertzea

Altzariak egiteko:
Haritza Lizarra
Gereizia Gaztaña

Santixabel zorientsuak pasa!

Zubieta


Telf.: 943 36 22 3

Aginaga 943
☎ 36 27 73

BEREZITASUNAK
SEKAÑA Txerrikumea,
Txuleta eta Arraina

Euskaraz bizitzeak eztu prezioik!

Ez 100 pta., ez 1.000 pta., ez 11 milioi. Ez bata, ez bestea, eta ezta hurrengo ere. Eskuratu nahi dugun horrek... eztu prezioik!



Azken hilabete honetan kolore biziko hainbat kartel ikusi ditugu kaleetan **"Zenbat da?"** galdera eginez. Udalak bultzatutako merkataritza euskalduntzeko kanpainaren hasiera da.

1997an herriko establezimendu guztiak aztergai zituen ikerketa soziolinguistikoko bat burutu zen herriko merkataritza euskaraz bizi duen egoera ezagutzeko. Emaitzak positiboak diren arren, oraindik ere erdararen presentzia nabarmena da. Honenbestez, euskararen normalkuntzarako bidean merkataritza arloak duen garrantziaz jabetuta, Udalak interbentzio kanpaina bati ekin dio.

Bi dira egitasmo honen helburuak: bata, Usurbilgo merkatariei dagokiena: euskararen ezagutza bultzatzea eta establezimenduetako elementu idatziak (errotuloak, ordutegiak, menuak...) euskaratzea. Bestea, da establezimendu hauetan ere (dendetan, tabernetan, jatetxeetan...) herritarrok euskararen erabilera bultzatzearen ardura hartzea.

Helburu hauetara iristeko, arreta berezia eskaini zaio motibazioa lantzeko aurrekanpainari, euskararen presentzia areagotzeko herritarren inplikazioa ezinbestekoa baita. Hortaz, kanpainaren irudia eta mezua diseinatzerakoan hiru irizpide erabili dira: merkataritza arloarekin erraz identifikatzen dena (Zenbat da?), herrian bertan kokatua (kartel nagusia), kaleko hizkera biziaz emana (Eztu prezioik!).

Azken hilabetean herriko kaleetan ikusitako kartelak eta hauek sortutako jakinmina dira aurrekanpaina honen lehen emaitza.

Kanpainaren tresna nagusia udalaren eta herriko establezimenduen artean landuko diren hitzarmenak dira. Hauen bidez denda, taberna, e.a.eko bakoitzak bere establezimenduan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko konpromezua hartuko du, eta udalak horretarako beharrezko bitartekoak eskainiko ditu (ikas

taro bereziak, itzulpen zerbitzua...).

Aurrekanpaina bukatuta, herriko merkatariei guztiari datoren astean, udaletxean burutuko den bileran parte hartzeko deia bidali zaie, bertan kanpaina honen berri zehatza jasotzeko eta aipatutako bigarren faseari hasiera emateko.

Euskaraz bizitzeak preziorik ez duelako, ekin zuk ere euskaraz saldu zein erosteari, merke aterako zaitu eta.

Olatz Altuna

Zenbat da?

Eztu prezioik!

errotuloak, oki ndegia, merkealdiak, eskerrik asko!, zenbat da?, ogi bat, 100 pta. besterik?, ordutegia, liburudenda, hamar kopia sagardotegia, kafesnea, zer behar duzu?... Usurbilgo merkataritza euskalduntzen

Santixabel zoriotsuak denoi!



MAPFRE
ASEGURUAK

Ana Olasagasti

Etxebeste kalea, 9
20170 Usurbil Tlf. 943 36 00 83

Arkume erretegia

Arkumea parrilan

Haurrentzako parkea



Aparkalekua

Barazkiak parrilan

Etxeko berezitasunak

Zorionak usurbildar guztioi!

Zumartegi industrialdea
Aitezarra kalea, 4

USURBIL Tel.: 943 36 60 49

AGIRREZABAL
estankoa

Jai zoriotsuak
usurbildar guztioi!

Kale nagusia, 27
Telf.: 943 36 11 10

Bota bertsoa

Hemen ditugu Santixabelak


Santixabelak iritsi dira
eta gaitzen denok bil.
zatoz zu haurra eta sasoiko
bai neska eta bai mutil.
Utz neke eta haserraldiak
gorrotoak ditzagun hil
presta gaitzen umore onez
festetan baita Usurbil

Elkartasunez ospa ditzagun
herritar baldin bagara.
Goazen guztiok, nolana ere
irten gaitzen plazara.
Kanta dezagun eta jauzika
egin irrintzi, algara.
Esku emanez, kalerik kale,
zatoz gurekin dantzara!

Eliz-dorreko kanpaiak jo ta
bora goruntz suziriak.
Kalerik-kale has daitezela
herriko txistulariak.
Jo txalaparta eta adarra
gora trikitilariak,
gure ohiturak eta hauekin
zalapartari guztiak!

Egilea: Arantzazu Aranburu


Erremedioen txokoa



Artritisaren mina kentzeko

San Juan belarra (*Hiperium perforatum*) eta **olioa**
behar dira. Eskukada bete belar jarri ezazu oliotan, beti
ere beirazko ontzi txiki batean. Ontzia 40 egunez kan-
poan eduki. Denbora horretan olioak gorri-gorri jarriko
da. Mina non olioaz han igurtzi beharko duzu.

Lehiaketa



Non dago zubi zahar hau?

Asmatzaileen artean **Egioletan** bi lagunentzako afaria zozketatuko da

Mundiala jokatu zuten kalezartarrak zein diren?
Joxe Sarasola, Joxe Manuel Matxain, Juantxo
Apaolaza, Pedro Mari Matxain, Iñaxio Unanue,
Juan Martin Errasti, Paulo Mugika, Anjel Matxain,
Santos Irureta, Joxe Inaxio Añorga eta Donato
Makazaga. **Maria Pilar Amianok** asmatu ditu bai
eta zozketan berari egokitu zaio **Zumeta jatetxe-**
an afaltzea. Zorionak!

Esnaola

Usaindegia

**Ondo igaro
festak!**

Zubiaurrenea, 3
Tlf: 943 36 25 55

Santixabel onak pasa



Zure kirol arropa eta material guztia!

Kale nagusia 10

Telf.: 943 36 60 50

ANA

janaridenda

ONDO PASA

SANTIXABELAK!

Borda berri, 3
Usurbil

☎ 943 36 57 92

Gineako ama-alabak Usurbilen

Ginea Ekuatorial utzi eta Usurbila iritsi ziren ekainaren 2an. Maria Amor Bichua eta urtebete eta erdi dituen Alisol bere alaba, Tomas eta Mari Karmen Calparsororen etxean daude azken hilabete honetan. Alisolek kaderetan duen gaixotasuna sendatzera etorri ziren. Orain, amak ahoan duen infekzioa ere sendatzen ari dira El Pilar klinikan.

Etxean sartu bezain laister pasiloan azaldu zen Alisol, urte eta erdi dituen neska txikia. Soineko polit bat jantzita, ibiltzeko zailtasunak bazituen ere, aurrera eta atzera zebilen etengabe. Bere ama azaldu zen laister. Emakume luzea, ez ditu kilo asko soberan. Honek bai, Guinean janzten duten ohiko soinekoa zeraman.

Izan ere, Ginea Ekuatorialeko Malabo hiriko auzo batekoak dira biak. Gizona eta 3 urteko alaba han utzi eta Usurbila etorri dira alaba txikia sendatzera. **Mari Karmen Calparsorok** esan digunez kaderetatik operatzerara ekarri zuten txikia. "Ginean ezin zuten ezer egin. Horregatik Salesiar aitetako misiolariak hona bidaltzea erabaki zuten. El Pilar klinikak dohain egin behar zuen operazioa eta misiolari haiekin harremanak ditudanez hona ekartzea erabaki genuen".

Txikia operatzera eraman zutenean ezusteko berria



eman zieten medikuek: ez zuen operatu beharrik. Ez zuen gaixotasunik, kaderak bere lekutik aterata zituen eta oker hori zuzentzen saiatu dira medikuak. Horrez gain, amak infekzioa zuen ahoan eta infekzio hori sendatzeak denbora gehiago eskatzen duenez hemen egongo dira tratamendu hori amaitu arte.

Ginea Ekuatorialen miseria gorrian, pobrezian bizi dira gehienak. Maria Amor berak esan digunez petroleoa badago baina EEBBek eramaten dute guztia. "Egunean, 10.000 barrika petroleo inguru ateratzen dituzte gure herrian dauden lau enpresek. Petroleoa badago, diruak ere nonbait egon behar du, baina jende gehiena pobrezian bizi da. Gauzak aldatu egingo zirela zirudien, bizitza hobea izango genuela, baina hori ez da gertatu. Gutxi batzuk aberastu


dira beste guztien kontura".

Politikoak omen dira aberasten ari direnak. Bertako lehen-dakariak kanpokoekin dituzten zorrak ordaintzen ari direla esaten omen du, "baina bien bitartean hegazkina erosi du orain dela gutxi". Maria Amorraren esanetan lehendakariaren aurka zeozer esan edo egiten duena desagertarazi egiten dute. "Ni ere kartzelan egon nintzen, armak ekarri zuen lagun bat etxean eduki genuelakoan". Dena gezurra zen, Nigeriatik etorri zen lagun bat eduki omen zuten etxean.

Gustora daude hemen, baina hango beroa botatzen dute faltan. Nahiz eta azken egunetan bero haundia egin, amak lau mantarekin egiten du lo. Horregatik badute uztailaren hasieran etxera joateko gogo.

Josu Aranberri

USURBI



Gidari eskola

Santixabel on!

Bizkarre, 4
Usurbil

☎ 36 27 93

IRIGOIEN JATETXEA

ZORJONAK USURBIJLDAK
GUZTJOS!

ZUBIETA

TELF.: 943 37 28 75

BAYMUE

Etxetresna elektrikoak

Bainugelak,
sukaldeko altzariak eta tresnak
eta opariak

Ondo pasa festak!

Zubiaurrenea, 3 ☎ 943 36 57 42

A genda

EKAINAK 30 asteartea

Umeen jokua herriko plazan goizean zehar.
 Arratsaldean 17.00etan **Hanka gorri taldea** Bonberoak ikuskizunarekin.
 Gauean "Usurbildarrak daukate" ekitaldia.

UZTAILAK 1 asteazkena

18.00etan "maskotaren igoera".
 24.00etan **Ikurrinaren igoera** aurten 25. urteurrena ospatzen duen **Irriu abesbatza**ren eskutik.
 Ondoren **tanborrada**.
 Bukatzeko **Etzakit** taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 2 osteguna

11.00etan **Meza Nagusia**.
 Ondoren **ohorezko soka dantza** egingo dute tabernariek.
 Jarraian **salda eta lore bana-keta**.
 16.30etan txoznetan III. Santixabel mus txapelketa.
 17.00etan **pelota partiduak**, afizionatuak eta profesionalak.
 Ondoren **gaztetxo**en **tanborrada**.
 21.00etan txoznetan afaria. Ondoren Morau
 23.00etan Laiotz taldea

UZTAILAK 3 ostirala

6.00etan **txokolatada eta oilasko biltzaileen irteera**.

16.30etan Igel jokoa Santixabel VIII. Saria zahar egoitza berriaren aurrean.
 18.00etan goitibera.
 Gauean rock jaialdia: **Zea Mays, Kung Mafrundi eta Joxe Ripiau**

UZTAILAK 4 larunbata

- 11.30etan toka txapelketa.
- 14.00etan **zikiro jana**
- 18.00etan koadrilen arteko herri jokoa.
- 22.30etan bertso saioa. **Lizaso, Egaña, Jon Sarasua, Mendiluze, Iturriaga eta Peñagarikano**
- Ondoren **Imuntzo eta Beloki**.

UZTAILAK 5 igandea

- Egurdiko 12.00etan herriko dantzarien saioa.
- 16.00etan gomazko pelotarekin jokatu den **pala txapelketako azken partiduak**.
- Ondoren idi-dema.
- 24.00etan **maskota erretzea**

UZTAILAK 6 astelehena

- Odol-emalleen **odol emaldia** izango da herriko anbulategian. 19.00etatik 21.00etara.

UZTAILAK 12 igandea

- II. **pelota joko zaharren eguna** Zubietako plazan

KALEZARKO MOJETAN IBILITAKO GUZTIENTZAT

OSPAKIZUNA ETA AFARIA

EGUNA: uztailaren 10ean
 OSPAKIZUNA: mojetan, arratsaldeko 18.30etan
 AFARIA: Lasarteko "Txitxardin Beltza"n" Arratsaldeko 20.30etan
 Menua: 4.000 pezeta inguru
 IZENA EMATEA: M^o Jexux Izagirre
 Tel. 943363430
 Mirari Larreta
 Tel. 943372121

Izena emateko epea: uztailak 3



"ATERPE" ESKULANGINTZA TALDEAREN ERAKUSKETA

Urtean zehar hainbat egurrezko taila, zaharberritze egitez gain pintura ere landu dute "Aterpe" tailerreko ikasleek. Urtean zehar egin dituzten lanak Motzanean ikusgai izango dituzue Uztailaren 1etik 5era.

KOADRILEN ARTEKO HERRI JOKOAK

Uztailaren 4ean Euskal presoak Euskal Herrira aldarrikatzeko koadrilen arteko herri jokoa izango dira. Animatu zaituzte! 8 lagunez osatutako edozein talde edo koadrilak hartu dezake parte

BAZKIDIE TXARTELA

5000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: _____
 1. Abizena: _____
 2. Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

414

**bazkide ditu Noauak.
 Zu ere egin zaituzte
 bazkide**



IGUARTE

SAGARDOTEGIA

Sagardotegiko menua 2.500 pta.



EGUNEKO MENUA 1.000 pta

1. go platera

Entsalada mixtoa
Fideo zopa
Arrai zopa
Esparragoak
Barazkiak

2. platera

Xerra
Arraia arrutz-irinetan
Izokina plantxan
Txerri txuleta

Postrea

Kontesa
Fruta
Arroz-esnea
Flana
Helatu desberdinak

Txiki Erdi poligonoa, 11

Telf.: 943 37 01 13